



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko maiatzaren 19an

34 ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

- Bogotan, Kolonbian, gertatu den Eduardo Umaña Mendoza jaunaren erailketa gaitzesteko Adierazpena. Bozeramaileen Batzarrak onetsia (2. or.).
- Ebazpena, Nafarroako Gobernuak premiatzen duena Aceralia Taldeko lanpostuak mantentzeko behar diren urratsak eman ditzan. Industri, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordeak onetsia (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Arga ibaiaren kutsadura dela-eta, Ingurugiro Departamentuak garatuko dituen ekimenei buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoiz Lezáun Foru Parlamentari jaunak egin (4. or.).
- Euskarazko Haur eta Lehen Hezkuntzarako lanpostuak esleitzeko egindako probei buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egin (5. or.).
- Estatuko administrazioek eta Nafarroako Gobernuak lur kutsatuak bereonertzeko plan nazionalaren jarduketak direla-eta izenpetu duten lankidetzaren hitzarmenari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (6. or.).
- Estatuko administrazioek eta Nafarroako Gobernuak hondakin arriskutsuen plan nazionalaren jarduketak direla-eta izenpetu duten lankidetzaren hitzarmenari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (7. or.).
- Estatuko administrazioek eta Nafarroako Gobernuak urak saneatu eta arazteko plan nazionalaren jarduketak direla-eta izenpetu duten lankidetzaren hitzarmenari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (8. or.).
- Hartz arrea Nafarroako Pirinioetako aldean agertzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egin (9. or.).

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu bat lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa. Izendapena (11. or.).

E saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Bogotan, Kolonbian, gertatu den Eduardo Umaña Mendoza jaunaren erailketa gaitzesteko Adierazpena

BOZERAMAILEEN BATZARRAK ONETSIA

Bozeramaileen Batzarrak, 1998ko maiatzaren 12an eginiko bilkuran, ondoko Adierazpena onetsi zuen:

1. Nafarroako Parlamentuaren oinaze handia eta arbuioa adieraztea, giza eskubideen abokatu defendatzaile zen Eduardo Umaña Mendoza jauna Bogotan erail dutelako berriaren aurrean.

2. Nafarroako Parlamentutik salatzea, giza eskubideen beste hogei defendatzailearen hilketari gehitu zaiola aipatu erailketa, 1997an zehar. Hildakoen artean ditugu, besteak beste, Jesús María Valle jauna, Antiokiako giza eskubideen babeserako batzorde iraunkorraren burua eta María Arango Fonnegra andrea, 60 urtekoa, Alderdi

Komunistako buruzagia, 1998ko apirilaren 17an eraila.

3. Nafarroako Parlamentutik gaitzestea erailketa hauei erantzun azkarra ez ematea, erantzukizuna dutenak ikertuz eta Justiziaren esku jarritz, eta indar publikoetako eta Estatuko beste organismo batzuetako kideak, giza eskubideen urratze larrietan zerikusia dutenak, jarduneko zerbitzutik kenduz.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena, Nafarroako Gobernuaren premiatzen duena Aceralia Taldeko lanpostuak mantentzeko behar diren urratsak eman ditzan

INDUSTRI, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEAK ONETSIA

Industri, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordeak, 1998ko maiatzaren 14an eginiko bilkuran ondoko ebazpena onetsi zuen: "Ebazpena, Nafarroako Gobernuaren premiatzen duena Aceralia Taldeko lanpostuak mantentzeko behar diren urratsak eman ditzan". Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena, Nafarroako Gobernuaren premiatzen duena Aceralia Taldeko lanpostuak mantentzeko behar diren urratsak eman ditzan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du behar diren urratsak eman ditzan Espainiako Gobernuarekin, ARBED taldean daukan partaidetazaz baliaturik:

1. Nafarroako Foru Komunitatean Aceraliak dituen lantegi guztietako lanpostuak berma ditzan, bereziki Berribeiteko lantegikoak.

2. ACERALIA enpresaren planak indar ditzan, egutegi argia eta zehatza jarritz Foru Komunitate-

ko lantegi bakoitzean egin beharreko inbertsioetarako, modu horretan Berriobeitiko lantegiaren bizi-
raupena eta baita garapena ere bermatuz. Horretarako hodian eta profilen lerroa modernizatu,

eraikuntza, itxitura eta panelen lerroak indartu eta lehengaiak eta produktu bukatuak biltzeko dauzkan unitateak eguneratu eta dimentsionatu behar dira.

F saila:
GALDERAK

Arga ibaiaren kutsadura dela-eta, Ingurugiro Departamentuak garatuko dituen ekimenei buruzko galdera

MIGUEL ANGEL LARRAYOZ LEZAUN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Miguel Angel Larrayoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak Arga ibaiaren kutsadura dela-eta, Ingurugiro Departamentuak garatuko dituen ekimenei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Miguel Angel Larrayoz Lezáunek, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Gorabehera larria gertatu da berrikitan Arga ibaiaren uren egoera eta kalitatean, Iruñaren eta alboko herrien parean, eta arrain asko hil da horren ondorioz.

Badirudi ez dagoela ondorio sendo eta argirik aurrekoaren arrazoien gainean.

Aurreko gertakariak eta, batez ere, arrazoiak zehatz-mehatz ez ezagutzeak zalantza egoera orokorra sortu dute naturari kalte eragiten dioten kontrolari buruz, eta babesik eza bestelako jatorria duten beste aldaketa batzuen aurrean.

Komunitate honek bere duen ingurugiroarekiko kontzientzia garatua dagoenez eta Departamentuak dituen baliabide ekonomikoak eta eskumen-maila kontuan hartuta, bidezko da gertatu denaren gaineko ikerketa zehatz-mehatza eskatzea.

Beste alde batetik, are beharrezkoago dugu aipatu ikerketa, gogoan hartzen badugu Iruñeko

Udalak dagoeneko abiatuta duen proiektua, Arga ibaia eta haren ingurua bereonertzeari buruzkoa. Izan ere, balio gutxi izango du herritarrek horren abegi ona egin dioten ekinbideak, gizarte-eragin nabarmena eta Nafarroako hiriburua eta Iruñerriari proiektzioa emango dionak, Departamentuaren, eta are, ibai-arroan eskumenak dituen organoaren lankidetzaz egokia baino gehiago beharrezkoa gertatzen ez bada.

Are gehiago, aipatu organoek betetzen ez badituzte kudeaketa eta zaintza arloko eskumenak, kalte eragin diezaiokete udalaren ekinbide handiari.

Horiek horrela, hauen berri izan nahi dut:

1.- Zer ekinbide konkretu eta zehatz hartu ditu Ingurugiro Departamentuak egunotan Arga ibaian gertatu dena kontuan harturik?

2.- Zeintzuk jotzen dira gertakariaren arrazoi konkretizat eta zer egiantzekotasun dute ondorioek? Hala bada, noiz errepikatu dira gertakariok, arrazoi berberengatik?

3.- Zer bide erabili da erdietsitako ondorioetara iristeko?

4.- Gertatukoaren jarraipena egitea aurreikusi al da?

5.- Harremanik izan al da Estatuko Administrazioak ibai arroaz arduratzeko duen organoarekin, organo horrek bere eskumenak betetzeari buruzkoan eta aipatu organoaren eta Departamentuaren artean izandako informazioa eta azterlanen trukaketaren inguruan?

6.- Ba al da planteamendurik Arga ibaian ari-zeko, bai Iruñeko parean, bai gorago, uren kalitatea hobetu, isurketak gutxitu eta hobetu kontrolatu eta abarrendako? Halaber, jakin nahi dugu ekin-tzarik burutzeko asmoa dagoen ibaiaren iturburu-tik hasita ibaiadarretaraino, aipatu ibaiaren ibilbi-

dea bereoneratzeko prestatu den planari kalterik ez egiteko.

7. Eragileen aurkako zehapen espedienterik irekiko al du Departamentuak? Ezezkoan, ez al du uste herritarrak iritziko direla ingurugiroari kalte

handia egiten diotenen inolako zigorrik gabe aterako direla pentsatzeraino?

Iruñean, 1998ko maiatzaren 4an

Foru Parlamentaria: Miguel Angel Larráyoz Lezáun

Euskarazko Haur eta Lehen Hezkuntzarako lanpostuak esleitzeko egindako probei buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak euskarazko Haur eta Lehen Hezkuntzarako lanpostuak esleitzeko egindako probei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentaria, Eusko Alkartasunaren aldetik, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Enplegu-eskaintza publikoak 70 lanpostu sartu ditu euskarazko Haur eta Lehen Hezkuntzarako.

Datorren uztaietan egingo diren proben ondorioz, lanpostu horiek bete eta aldi baterako langileen zerrendak egingo dira.

Honaino, ongi. Baina hauxe gertatzen da, txunditzekoa bada ere: proba horiek garatzeko aurreikusi den prozeduran euskara ez dela funtsezko hizkuntza, eta harrigarria da irakaskuntzarako euskara besterik erabiliko ez duten langileen oposizioan euskara ez izatea hizkuntza bakarra, kalitate-galera eragin dezake eta.

Horiek horrela, hurrengoak jakin nahi ditugu:

- Probentzako aurreikusi den garapena azaltzea.
- Horren justifikazio arrazoitua.
- Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiak horri buruz duen iritzia.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 5ean

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Estatuko administrazioek eta Nafarroako Gobernuak lur kutsatuak bereoneratzeko plan nazionalaren jarduketak direla-eta izenpetu duten lankidetza hitzarmenari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Estatuko administrazioek eta Nafarroako Gobernuak lur kutsatuak bereoneratzeko plan nazionalaren jarduketak direla-eta izenpetu duten lankidetza hitzarmenari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Herrilan, Garraio eta Ingurugiro Ministerioak hauxe agindu dio Ingurugiro eta Etxebizitza Estatu Idazkaritzari, 1671/1993 Errege Dekretuaren bidez: ingurugiroa babesteko jarduera integratuak bultzatu eta koordinatzea.

Ingurugiroaren babesaren alorrean gure Komunitateak bereganatu dituen eskumenekin bat, Nafarroako Gobernuak lankidetza hitzarmena izenpetu zuen beste administrazioarekin, hondakin arriskutsuen plan nazionalaren helburuak lortzen laguntzeko asmoz.

Administrazio publikoek esku hartu behar dute, nahitaez, lur kutsatuen lehen estatu-inbentarioak antzemandako lur-kutsaduraren ondorioz heldu diren arazoei aurre egiten. Hor kokatu beharra

dago aipatu hitzarmena, zeinaren bitartez oinarriko baldintzak ezarri diren Estatuko Administrazioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzarako, Nafarroako Foru Komunitateak lurrak bereoneratzeko zertzen dituen proiektuen finantzaketaren alorrean. Hitzarmenaren xede dugu, halaber, Europako Batasuneko kohesio fondoetara iristeko bide eraginkorrak ezartzea, lur kutsatuak bereoneratzeko plan nazionalaren (1995-2005) helburuen baitan.

Hasieran horretarako aurreikusi ziren baliabi-deak 1.486 milioi pezeta ziren, ondorengo herrietan burutu beharreko jarduketetan banatuak: Tafalla (367 milioi), Lodosa (833 milioi) eta Zangoza (286 milioi). Hitzarmenak, azkenik, jarraipenerako bitariko batzordea eratzea ere jaso zuen.

Estatuko administrazioek eta Nafarroako Gobernuak lur kutsatuak bereoneratzeko plan nazionalaren jarduketak direla-eta izenpetu duten lankidetza hitzarmenaren gainean, hurrengo galderei erantzutea eskatzen dut:

1. Hitzarmenaren jarraipenerako bitariko batzordeak izandako bileren ondorioz, zein izan da urteko programazioa aipatu hitzarmena izenpetu zenetik?

2. Aipatu hitzarmenak aurreikusten zituen obrak edo proiektuak burutzea dela-eta, zer aldaketa hobetsi du lehen esandako batzorde horrek?

3. Proiektu edo obraren bat kendu edo gehitu al zaie hitzarmenak jasotzen zituenei?

4. Zer egoeratan dago egun aipatu plan nazionalak ezarri zuen kopuruaren finantzaketa eta bi administrazioen eskuhartze-portzentaia?

Iruñean, 1998ko maiatzaren 4an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Estatuko administrazioek eta Nafarroako Gobernuak hondakin arriskutsuen plan nazionalaren jarduketak direla-eta izenpetu duten lankidetzaren hitzarmenari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Estatuko administrazioek eta Nafarroako Gobernuak hondakin arriskutsuen plan nazionalaren jarduketak direla-eta izenpetu duten lankidetzaren hitzarmenari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Herrilan, Garraio eta Ingurugiro Ministerioak hauxe agindu dio Ingurugiro eta Etxebizitza Estatu Idazkaritzari, 1671/1993 Errege Dekretuaren bidez: ingurugiroa babesteko jarduera integratuak bultzatu eta koordinatzea.

Ingurugiroaren babesaren alorrean gure Komunitateak bereganatu dituen eskumenekin bat, Nafarroako Gobernuak lankidetzaren hitzarmena izenpetu zuen beste administrazioarekin, hondakin arriskutsuen plan nazionalaren helburuak lortzen laguntzeko asmoz.

Aipatu hitzarmenak oinarritzako baldintzak ezarri ditu Estatuko Administrazioaren eta Nafarroako

Gobernuaren arteko lankidetzarako, Nafarroako Foru Komunitateak hondakin arriskutsuen alorrean zertzen dituen proiektuen finantzaketaren alorrean. Hitzarmenaren xede dugu, halaber, Europako Batasuneko kohesio fondoetara iristeko bide eraginkorrak ezartzea, aipatu proiektuak hondakin arriskutsuen plan nazionalaren (1995-2000) helburuekin bat baldin badatoz, beti ere.

Hasieran horretarako aurreikusi ziren baliabideak 720 milioi pezeta ziren.

Hitzarmenak, azkenik, jarraipenerako bitariko batzordea eratzea ere jaso zuen.

Estatuko administrazioek eta Nafarroako Gobernuak hondakin arriskutsuen plan nazionalaren jarduketak direla-eta izenpetu duten lankidetzaren hitzarmenaren gainean, hurrengo galderari erantzutea eskatzen dut:

1. Hitzarmenaren jarraipenerako bitariko batzordeak izandako bileren ondorioz, zein izan da urteko programazioa aipatu hitzarmena izenpetu zenetik?

2. Aipatu hitzarmenak aurreikusten zituen obrak edo proiektuak burutzea dela-eta, zer aldaketa hobetsi du lehen esandako batzorde horrek?

3. Proiektu edo obraren bat kendu edo gehitu al zaie hitzarmenak jasotzen zituenei?

4. Zer egoeratan dago egun aipatu plan nazionalak ezarri zuen kopuruaren finantzaketa eta bi administrazioen eskuhartze-portzentaia?

Iruñean, 1998ko maiatzaren 4an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Estatuko administrazioek eta Nafarroako Gobernuak urak saneatu eta arazteko plan nazionalako jarduketak direla-eta izenpetu duten lankidetza hitzarmenari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Estatuko administrazioek eta Nafarroako Gobernuak urak saneatu eta arazteko plan nazionalako jarduketak direla-eta izenpetu duten lankidetza hitzarmenari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteuguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Herrilan, Garraio eta Ingurugiro Ministerioak hauxe agindu dio Ingurugiro eta Etxebizitza Estatu Idazkaritzari, 1671/1993 Errege Dekretuaren bidez: ingurugiroa babesteko jarduera integratuak bultzatu eta koordinatzea, ur jabari publikoaren kudeaketari dagokionean, batez ere.

Nafarroako Gobernuak lankidetza hitzarmena izenpetu zuen beste administrazioarekin, gure Komunitateak ingurugiro, ur hornidura eta saneamenduaren alorrean bereganatu dituen eskumenekin bat eta Europako Batasunak hirietako hondakin-urak arazteko neurriei buruz eman duen Zuzentaraua betetzeko asmoz, 2005.a baino lehen udalek, are 2.000 biztanle baino gutxiago dituztenek, tratamendu egokia behar dutela ezarri bait.

Aipatu hitzarmenak oinarritzko baldintzak ezarri ditu Estatuko Administrazioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzarako, urak saneatu

eta arazteko plan nazionalak hartu dituen proiektuak prestatzeko eta obrak burutzeko finantzaketan. 1995eko otsailean onetsi zuen Ministroen Kontseiluak plan hori eta 16.900 milioi pezeta ezarri dira Nafarroan egin beharreko obren guztizko kostutzat.

Aipatu plan horretan, halaber, Nafarroako Plan Zuzentzailean egiteko zeuden obrarik garrantzitsuenak ageri dira, hala nola, Arazuriko araztegia, 3.812 milioi pezetako aurrekontuarekin; eta Ebroko ibai-arroa araztea, Tutera eta Andosilla-San Adriángo araztegiekin, eta Tafalla-Oliteko araztegiaren handitzearekin. Aipatu horietarako inbertsioa 2.134 milioi pezeta izan zen, guztira.

Planak 5.064 milioi pezeta aurreikusitu ditu Nafarroako inbertsio horiek Europako Batasuneko Kohesio fondoekin ere finantzatzeko. Hitzarmenak, azkenik, jarraipenerako bitariko batzordea eratzea ere jaso zuen.

Estatuko administrazioek eta Nafarroako Gobernuak urak saneatu eta arazteko plan nazionalako jarduketak direla-eta izenpetu duten lankidetza hitzarmenaren gainean, hurrengo galderari erantzutea eskatzen dut:

1. Hitzarmenaren jarraipenerako bitariko batzordeak izandako bileren ondorioz, zein izan da urteko programazioa aipatu hitzarmena izenpetu zenetik?

2. Aipatu hitzarmenak aurreikusten zituen obrak edo proiektuak burutzea dela-eta, zer aldaketa hobetsi du lehen esandako batzorde horrek?

3. Proiektu edo obraren bat kendu edo gehitu al zaie hitzarmenak jasotzen zituenei?

4. Zer egoeratan dago egun aipatu plan nazionalak ezarri zuen kopuruaren finantzaketa eta bi administrazioen eskuhartze-portzentaia?

Iruñean, 1998ko maiatzaren 4an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Hartz arrea Nafarroako Pirinioetako aldean agertzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko maiatzaren 12ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Hartz arrea Nafarroako Pirinioetako aldean egoteari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Historian zehar, hartz arreak gure Komunitateko mendietako zati handiak bete izan ditu, habitata haren aldekoa zenean, baina mende honetan zehar atzera egin du nabarmen, urtetik urtera gero eta azeleratuago. Hala ere, hainbat alditan antzeman da Nafarroako Pirinioetako zenbait tokitan noizean behin ibili izan dela.

Orain dela egun batzuk, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko teknikariek hartz arrea bat sumatu dute Erronkari eta Anso ibarren artean. Hartz horrek akabatu omen ditu Uztarrozeko artalde bateko zazpi ardi. Erasoa Lazako mendatean gertatu omen da, Uztarrozetik hiru kilometro ingurura dagoen borda batean.

Galtzeko zorian dagoen espezieetat katalogatu dute hartz arrea Mehatxupeko Espezieen Katalogoan, hala gure Komunitatean, nola Estatuan eta Europan. Nafarroako Gobernuak 268/1996 Foru Dekretua eman zuen espezie horretarako berreskuratze-plana onesteko. Planaren helburua da espezie horren atzerakadan eragina duten edo izan duten kontrako eragileak ezabatzea, epe luzean bideragarri izango den biztanleria har dezan eta balizko habitata berriro bete dezan, baina Nafarroako Pirinioan hartz arrea ale gehiagorik sartu gabe.

Nafarroako Gobernuak ez du oraindik idatzi aipatu Foru Dekretuaren IV. tituluak jaso duen

urteko jarduketa-programarik. Izan ere, parlamentario honek 1997ko martxoan egin zuen galderari bati emandako erantzunaren arabera, urteko programa horiek eta LIFE programaren baitan, Pirinioetan galzorian dauden ornodunak zaintzeko proiektua garatzeko programak, berberak dira.

Nafarroako Gobernuak Okil Beltza taldea kontratatu zuen Nafarroako hartz arrea zaintzearekin zerikusia duten behatze-lanak egiteko. Natura Zaintzeko Zerbitzuko langileekin koordinatuz burutzen dira lan horiek.

Aipatu erantzun horretan, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak adierazi zuen hurrengo jardueretan ari zela berreskuratze-planak aurreikusi helburuak erdigiteko:

- Ehizaren jarraipena eta kontrola, gebenaldiak, ehiza-erreserbak, babesgune naturalak, katalogatutako espezieak eta abar errespetatzeari buruz.

- Artzaintzaren jarraipena eta kontrola, udan erabiltzeko guneei (sarobeei), horietarako irispideei (pisten erabilera) buruzkoan, hartzaren balizko erasoari arreta egitea, eta abar.

- Jarduera turistikoaren jarraipena eta kontrola, dauden irispideei (pistak), espazioaren erabilerari, jarduera gehien duten aldi eta tokiei buruzkoan, eta abar.

- Espeziearen jardueraren etengabeko jarraipena. Haren presentziaren aztarnak bilatzea. Ibilbide finkoak aldi-aldi egitea. Aragoi eta Frantziara zeregin berberak dituzten langileekin koordinatzea.

- Ingurugiro zaindariak prestatzea ikastaroen eta hartz-inguruetako ibilbideen bitartez.

- Erronkariko naturaren interpretazio zentroan hartz arrearri buruzko modulua sartzeari, haren biologia eta zaintzarekin zerikusia dutenak sartzeari.

- Hartzari buruzko informazioa emateko kanpaina, inguruko eskolatan.

Beste alde batetik, bai Erronkari Ibarreko Batzarreak, bai Izabako Udalak errekurritu egin dute hartz arrea galzorian dagoen espezieetat katalogatu izana, eta baita berreskuratze plan bera ere.

Hona Nafarroako aurrekontu orokor desberdinetan sartu diren aurrekontu-kontusailak:

1995	Hartza-ugatza programako kalteordainak	10 milioi
	Hartza-ugatza zaintzeko programaren kudeaketa	30 milioi
1996	Hartza-ugatza programako kalteordainak	4 milioi
	Hartza-ugatza zaintzeko programaren kudeaketa	20 milioi
1997	Hartza-ugatza zaintzeko programaren kudeaketa	20 milioi
1998	LIFE programaren kudeaketa	17.5 milioi

Hartz arrea Nafarroako Pirinioetako aldean agertu dela-eta, hurrengo galderai erantzutea eskatzen dut:

1. Ingurugiro Departamentuak izan al zuen hartz arrea Uztarroze inguruan zebilelako berri, aipatu gertakariak baino lehen?

2. Espezie honetako zenbat ale somatu da gure Komunitatean, hartz arrea berreskuratzeko plana onestearen ondoriozko jarduerak hasi zirenetik? Aipa bitez zenbat ale, ingurua, eta haien jardueraren jarraipena eta kontrola.

3. Hasieran aipatu den ardi-hilketa hartz arreen erasoari egotz dakioke? Baiezkoan, zertan oinarritu dira eraso hori baieztatzeko?

4. Zer jarduketa burutzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak halako erasoak saihesteko? Zer sistema aurreikusi du kaltetutako abeltzainari galerak ordaintzeko?

Iruñean, 1998ko maiatzaren 5ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

G Saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Administrari izateko lanpostu bat lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa

Izendapena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko maiatzaren 12an eginiko bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Administrari lanpostu bat betetzeko lekualdatze-lehiaketarako deia egin ondoren (Mahaiak 1998ko urtarrilaren 27an hartu zuen erabakia, 1998ko otsailaren 10eko 12. zk.ko NPAOn argitaratu zen), lehiaketa horretako epaimahiak izangaien zerrenda bidali du, puntuen arabera sailkatua. Aipatu lekualdatze-lehiaketaren 7.2 oinarriak ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1go. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari lanpostua betetzeko egin den lekual-

datze-lehiaketan hartzeko zegoen lanpostua M^a Eunate Pérez de Rada Arístegui andreari esleitzea.

2gn. Administrarien kidegoko funtzionario izendatzea hurrengo izangaia, izen-deiturak eta jaiotze-data ere azalduz:

Pérez de Rada Arístegui, M^a de Eunate, 1951ko abuztuaren 24

3gn. Interesatuak hamar egun natural izango ditu lanpostuaz jabetzeko, izendatzeko ebazpena jakinarazten zaionetik.

Iruñea, 1998ko, maiatzaren 13an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 170 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--